ZERBITZU-KONTRATUA ESLEITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA: ARRIETAKO UDALAREN EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLAN ESTRATEGIKOA GARATZEN LAGUNTZEA.

1. HELBURUA

Zerbitzu-kontratu honen funtsa: Arrietako Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plan Estrategikoa garatzen laguntzea.

2. EGINKIZUNAK

2.1. Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren jarduera-esparruetako helburu estrategikoak laguntzen garatzea, betiere, Arrietako Udalaren orain arteko Plan Estrategikoetan jasotako ildo nagusiak aintzat hartuta.

Hau da, Arrietako Udalari lagunduko zaio eginkizunen prestaketa eta garatze-lanetan, besteak beste, honako egitasmoetan:

2.1.1. Sentsibilizazio kanpainak: euskara ereduaren aldekoa, euskara ikasteko eskaintzaren berri ematea, e.a.

2.1.2. Euskararen transmisioaren inguruko egitasmoak lantzea.

2.1.3. Kirol eta Aisialdiko ekimenak bideratzea: begirale eta entrenatzaileentzako ikastaroak, sentsibilizazio kanpainak, e.a.

2.1.4. Irakurzaletasuna bultzatzea haur eta gazteengan

2.1.5. Euskara Sailaren web gunetako materialak prestatzea eta elikatzea.

2.1.6. *Euskaraldia: 11 egun euskaraz* proiektua lantzea

2.1.7. Laguntza ematea udaleko euskara sailari urteko kudeaketa planean jasotako gainerako ekintzen antolaketa zein gauzatze-lanetan.

2.2. Administrazio barruko Euskara Planaren helburu estrategikoak garatzea, betiere, Arrietako Udalaren orain arteko Euskara Planetan jasotako ildo nagusiak aintzat hartuta.

Hau da, Arrietako Udalari lagunduko zaio Euskara Planaren urteko kudeaketa-planeko ekintzen prestaketa eta garatze-lanetan, besteak beste, honakoetan:

2.2.1. Udal administrazioaren Euskara Planetan jasotako ekintzak eta trebakuntza-saioak egitea Euskara Planean sartuta dauden udal langileekin.

2.2.2. Laguntza ematea udaleko euskara sailari urteko kudeaketa planean jasotako gainerako ekintzen antolaketa zein gauzatze-lanetan.

2.2.3. Udaleko euskara sailari itzulpen-lanetan laguntzea lan-bolumenak hala eskatzen duenean.

2.3. Aldizkari bat egitea euskaraz hiru hilabeterik behin (ERDUPRESS)

2.4. Kirol, Kultura, Gaztegi eta umeen udalekuen lizitaziorako txostenak eta beharrizana betetzea.
2.5. Hileko agenda antolatzea.
2.6. Kultur jarduerak (Inauteriak, San Isidro, Gabonak, etab.)
2.7. Euskera eta kulturagaz lotutako dirulaguntzen kudeaketa.
2.8. Kontratazio pleguak, Euskara Plana eta Araudiekin bat datozela informatzea.
2.9. Administrazio idatziak, Euskara Plan eta Araudieri eguneratzea.
2.10. Euskara, Kultura eta Gaztedi sailaren administrazio lanak egitea.
2.11. Halan eskatzen jakonean, kontratazio epaimahaietan parte hartzea.
2.12. Udalaren hizkuntza ekoizpen zein baliabideetan euskalkien erabilera zaintzea.
2.13. Udalaren hizkuntza plangintzako gaiak rakunde publiko eta pribauen aurrean kudeatu, koordinatu eta bideratzea, azken honek aholkuak emonaz horrela esaktzen dabenean.
2.14. Euskararekiko motibazioa, ezagunepena eta Erabilera planen sustapen programak bideratu, herritaren adin tarte eta beharrizanen arabera.
2.15. Udalaren euskarazko hizkuntz produkzioaren kalitatea zaindu eta kontrolatu.
2.16. Hirigintzako euskara planarekin lotutako formakuntza ikastaroetan eta ondorengo kudeaketetan parte hartzea.
2.17. Itzulpengintza.

3. HARREMANAK UDALAREKIN ETA BESTELAKO HERRI ADMINISTRAZIOEKIN

- **Arrietako Udala**: Arrietako Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plan Estrategikoak jasoko dituen helburuak garatzeko proiektuak prestatzen lagundu, landu eta berauen jarraipena egin. Proiektuok udaleko euskara zerbitzuarekin batera koordinatuko dira.

  Udaleko euskara eta kultura argibide batzordeari hasierako proposamenak aurkeztuko zaizkio eta ekintzok burutu osteko memoria ere bai.

- **Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetza**: Eskatu beharreko aholkularitza eta laguntza eskatzea HPSri Arrietako Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plan Estrategikoa aurrera eramateko.

- **Bizkaiko Foru Aldundiko "Alkarbide" euskara zerbitzuen bilgunea**: Aholkuak eta bestelako laguntzak eskatzea *Alkarbide*-ri Udalak aurreikusitako egitasmoak burutzeari begira eta, *Alkarbide*-ren bitartez, Bizkaiko gainontzeko herriak euskararen inguruan prestatzen dituzten bestelako ekintzei buruzko informazioa eskuratzea, bai ESEPri dagozkionak eta baita Erabilera Planari dagozkionak ere *Trebagune*ren bidez.

4. ESLEIPENDUNAREN PARTEHARTZEA

4.1. Funtzioak

Euskara Sustatzeko Ekintza Planean jasotako helburu estrategikoak garatze aldera, esleipendunak, hasiera-hasieratik hartuko du parte prozesuan, hau da: Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren prestakuntza-lanekin hasi eta ekintzok burutu osteko ebaluazioa egin arte.

4.2. Tokia

ARRIETAKO UDALEAN.

4.3. Dedikazioa

Esleipendunak, pertsona bat (1) jarriko du lanaldi osoan, 2. puntuan zehazturiko zerbitzuak betetzeko, baita ESEP garatzeko eta beste Euskara Planerako.

Zerbitzua Arrietako Udaletxean emango da aste bakoitzeko ostegunetan, 8:00etatik 15:00etara, irailaren 16tik ekainaren 14ra bitartean, eta ekainaren 15etik iraileraren 15era 8:00etatik 14:00etara. Abuztuan ez da zerbitzurik emango.

Aurrekoa kontuan hartuta, egiaztatu da Udalak orduak izan behar dituela arratsaldean edo jaiegunetan antola ditzakeen bilera eta jardueretarako.

4.4. Programak

Lizitatzaileak egingo diren lanei buruzko proiektua aurkeztu behar du: helburuak, metodologia, egutegia eta gastu-aurreikuspenak.
Era berean, zehaztu egin behar du proiektua bideratzeko erabiliko dituen baliabide pertsonal eta teknikoak.
Halaber, administrazio publikoko euskara zerbitzuetan izandako esperientzia eta egindako lanak ere azalduko ditu.

5. ZERBITZUA ESLEITZEKO PROZEDURA

Prozedura ireki sinplifikatua izango da. Eskaintzak jaso eta txosten teknikoan aztertu eta gero, udalak zerbitzuen behin betiko esleipena egingo du edo zerbitzua esleitu barik utziko du, hala dagokionean.

6.- BALDINTZA PLEGUEI LOTUTA / BALDINTZA PLEGUAK BETETZEA

Zerbitzu guztiak baldintza plegu honetan zehaztutakoari estu lotuta burutu beharko dira, eta baita lizitazio-kontratuak zehaztuko dituen baldintzei lotuta ere.

Zerbitzuen prestazioa idatzi hauen arabera egin beharko da:

- Baldintza teknikoen plegu hau.
- Baldintza administratiboen plegua.
- Arrietako Udalaren eta enpresa esleipedunaren artean gauzatuko den kontratu-agiria.
- Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legea, azaroaren 8koa.
- Kontratu honi aplikatu beharko zaizkion bestelako kontratazio-araudiak.
- Arlo honi zehazki lotutako eta nahitaez bete beharreko bestelako araudiak; baldintza teknikoen plegu honetan egon ez arren, bete beharrekoak.
- Zerbitzuaren kontratazioan zeresana duten agiri administratibo guztiak.

7.- LANGILEAK

Indarrean dauden lege eta hitzarmenek diotena betez, enpresa esleipendunak gaur egun kontratatuta dauden langileen eskubide eta betebeharrak bete beharko ditu.

Kontratuak indarrean dirauen bitartean, aldaketaren bat egon behar bada erretiro, heriotza, borondatezko baja, kanporatze, elbarritasun tenporal, elbarritasun iraunkor edo holako baten ondorioz, edo aldaketaren bat izanez gero zerbitzuaren beharrizanek hala eraginda, esleipendunak aldaketok egiteko udalaren baimena eskatu eta lortu beharko du, idatziz.

Udalak ez du inongo erlazio juridiko, laneko edo antzekorik izango esleipendunaren langileekin, ez kontratuak dirauen bitartean ez eta kontratua amaitu eta gero. Esleipendunaren ardura izango dira izan daitezkeen obligazio, kalte-ordain eta erantzukizunak.

Enpresa esleipendunak, gehienez ere, 72 orduen buruan beteko ditu pertsonalaren ordezkapenak eta bajak. Ordeztuko duen pertsonak aurrekoaren perfil bera edo altuagoa izango du.

Aipatutako hitzarmena aplikatuko zaie kontratazio berrietako langileei edo zerbitzura enpresak bideratutako langileei.

Enpresak pertsona bat izendatuko du zerbitzuaren burua, enpresako ordezkaria eta kontratatutako zerbitzuen arduradun zuzena izateko. Prestakuntza aldetik, gutxienez lizentziatura edo diplomatura bat izan beharko du eta EGA edo baliokidea ere bai. Bera izango da Arrietako Udalarekin kontaktu zuzena edukitzeko arduraduna.

Arrietako Udalak, bere erantzukizun sozial eta ekonomikoa betetze aldera, enpresa esleipendunari exijituko dio konpromisoa hartzea produktibitate eta eraginkortasun irizpideen araberako pertsonen kudeaketa eta soldaten berrikuspenak egiteko. Langileen soldataren eta erosahalmenaren eboluzioa beti egongo da lotuta helburu jakin batzuen lorpenarekin, graduekin edo ratioekin, eta horiek langileen legezko ordezkariarekin negoziatu eta adostu ahalko dira.

Zerbitzua handituko balitz eta zerbitzua egoki emateko langile gehiago hartu beharko balira, enpresa esleipendunak beharrizan berrien eskaera egingo lioke udalari. Udalak plantilla handitzea onar dezake, eta horrela eginez gero, enpresa esleipendunari konpentsazio ekonomikoa eman beharko dio, betiere, oinarri harturik zerbitzua handitzeko unean indarrean dauden prezio bateratuak, edo, hala balegokio, beste era bateko prezioak.

Horrez gain, enpresa esleipendunak diseinatuko ditu giza baliabideen politikak, eta haren ardura izango dira langileen prestakuntza, laneko segurtasun, osasun eta higiene arloa eta beharrezko osasun zerbitzuak kudeatzea.

Enpresa esleipendunak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteko ditu: langileak alta emanda izan beharko ditu, afiliatuta, eta Gizarte Segurantzako kotizazioen ordainketak egunean izango ditu.

Esleipendunak, sei hilabetero, TC1 eta TC2 dokumentuak aurkeztuko ditu, euskarri informatikoan. Udalak edozein momentutan eskatu ahalko ditu kontratuen kopia, aldaketak, luzapenak, edo langileekin lotutako edozein agiri.

Faktura hilero aurkeztu beharko da.

Enpresa esleipendunak behar bezala aseguratuta izan beharko ditu bere ardurapean dituen langileak: aurreikusitako zerbitzuak egiterakoan hirugarrenei eragin ahalko liratekeen kalteak ordaintzeko erantzukizun zibileko asegurua egin beharko du, gutxienez 80.000,00 euroko estaldura duena.

Lehiaketara aurkezten diren enpresek Lan-arriskuen prebentzioari buruzko 31/95 Legea bete beharko dute, arlo horretako bermeen eta erantzukizunen oinarrizko arautegia.

Horretarako, enpresek lan-arriskuen ebaluazio plana aurkeztu beharko dute.

8.- BITARTEKO MATERIALAK

Lehiaketara aurkezten diren enpresek azaldu beharko dute zer bitarteko material beharko diren plegu honetan jasotako zerbitzuak eskaintzeko. Argi azaldu beharko dute zeintzuk izango diren zerbitzua eskaintzeko beharrezko materialak eta zeintzuk erreserbakoak; hau da, zerbitzuan ohikoak ez izan arren, matxura izanez gero eta behin-behineko errefortzua behar bada eskuratuko diren materialak.

9.- LANEN ANTOLAKETA ETA PLANIFIKAZIOA.

Egin beharreko lanak burutzeko lehiaketara aurkezten diren enpresak lan-antolaketarako proposamenak egingo dituzte. Honako hauek zehaztu beharko dituzte:

- Enpresak jarriko dituen elementu pertsonal eta materialen organigrama zehatza.

- Egindako lanak egiaztatu ahal izateko udalak eskatu ahalko dituen datu guztiak emateko kontrol-sistemak.
- Barne zerbitzu guztiekin lotutako antolaketari eta langileei dagozkien beharrezko baliabideak.
- Lanen planifikazio eraginkorra.
- Pertsonen kudeaketa.

Urtero enpresa esleipendunak aldaketaren bat egitea komeni den aztertuko du, eta udalari antolaketa plan berria aurkeztuko dio baliozko aldaketekin, udalak plan hori onar dezan.

10.- KONTROL SISTEMAK

Enpresa lizitatzaileek baliabide erraz batzuk aurreikusi beharko dituzte, sasoiz eman ahal izateko udalak beharrezko ikusten dituen kontrolak egiteko eskatu ditzakeen datu guztiak.

Udalak kontratatutako zerbitzuen prestazioa ikuskatuko du, eta langileak eta materialak aztertu ahalko ditu edonoiz eta edozein lekutan.

Enpresa esleipendunak egindako lanen berri eta zerbitzuan gertatutako ezohiko goraberen berri emango dio zerbitzuaren udal arduradunari; jasotako agindu edo jarraibideak bete beharko ditu eta zerbitzuaren lokal eta bulegoetarako sarbidea izango du. Enpresak kontratua betetzeko beharrezko diren agiriak erakutsi beharko ditu: bereziki, gai hauekin lotutakoak; gizarte-aseguruak, lan-istripuak, aseguru-polizak, instalazio eta materialak, eta antolaketa plana. Udalaren erantzukizun subsidiarioa saihesteko jarduerak onartuko ditu enpresak.

11.- KOMUNIKAZIOAK.

Aurreko artikuluan zehaztutako bideez gain, enpresa esleipendunak teknologia berriak erabiliko ditu zerbitzuaren udal arduradunarekin komunikatzeko.

12.- KONTRATUAREN IRAUPENA.

Kontratuak 2 (BI) URTE iraungo du, hasiera aktaren datan kontatzen hasita. Urtea amaitutakoan luzatu egin ahalko da, eta gehienez 4 (LAU) URTE iraun ahalko ditu; horretarako baldintzak Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta bestelako xedapen aplikagarrietan daude jasota.

13.- KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua bat dator Arrietako Udalak zerbitzu-kontratu honen xederako egingo duen gehieneko gastu-aurrekontuarekin, eta 14.876,03 eurokoa da. Zenbateko horri dagokion BEZa gehitu behar zaio, hau da, 3.123,96 euro, guztira 18.000 euro bi urterako (7.438,02 euro urtean eta 1.561,98 euro BEZ kontzeptuan).

Hala badagokio, eta SPKLren 29.2 artikuluarekin bat etorriz, urtebeterako luzapen bat aurreikusten da 2024rako, eta urtebeterako beste bat 2025erako, betiere haren ezaugarriak aldatu gabe badaude iraunaldian eta horretarako aurrekontu-partida badago.

Horretarako, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuan honako kontzeptu hauek baloratu dira: Zuzeneko kostuak kontratazioaren xede den zerbitzuarekin erabat identifikatzen direnak izango dira. Zuzeneko kostu ohikoenen artean hauek daude:

- Langileekin lotutako kostuak, Bizkaiko gizarte-aseguruen sektoreko hitzarmen kolektiboarekin bat etorriz, prestakuntza-ikastaroak.
- Zerbitzua emateko behar den materialarekin lotutako kostuak (mutualitatearekin, joan-etorriekin, telefonoarekin, erantzukizun zibilekin eta beste profesional batzuen zerbitzuekin lotutakoak).

Zeharkako kostuak kontratazioaren xede den zerbitzuarekin zuzenean identifikatu ezin direnak izango dira. Zeharkako kostu arruntenen artean, hauek daude:

- Amortizazioa (ordenagailua, autoa, inprimagailuak)
- Finantza-kostuak (bulegoaren alokairua, hipoteka, hala badagokio)
- Egiturazko gastuei edo gastu orokorrei lotutako kostuak.

Kontratuaren balio zenbatetsia, luzapenak barne, 29.752,08 eurokoa da (BEZik gabe), eta zenbateko horri 6.247,92 euro gehitu behar zaizkio, guztira 36.000 euro.

Balio zenbatetsia kalkulatzeko, kontuan hartu beharko dira, gutxienez, indarrean dauden lan-araudiak aplikatzearen ondoriozko kostuez gain, zerbitzuen gauzatze materialaren ondoriozko beste kostu batzuk, egitura-gastu orokorrak eta etekin industriala. Halaber, kontuan hartu beharko dira:

a) Behin-behineko edozein aukera eta kontratuaren balizko luzapenak.
b) Hautagaiei edo lizitatzaileei primak ordaintzea edo ordainketak egitea aurreikusi denean, horien zenbatekoa.
c) 204. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua aldatzeko aukera aurreikusi bada, kontratuaren balio zenbatetsitzat hartuko da kontratuak izan dezakeen gehieneko zenbatekoa, aurreikusitako goranzko aldaketa guztiak kontuan hartuta.

Horiek kalkulatzeko, honako kopuru hauek hartu dira oinarritzat:

a) Aseguru-zerbitzuetan, prima ordaintzailea eta ordaintzeko beste modu batzuk.
b) Banku-zerbitzuetan eta bestelako finantza-zerbitzuetan, ordainsariak, komisioak, interesak, amortizazioak eta ordaintzeko beste modu batzuk.
c) Proiektu bati buruzko kontratuetan, ordainsariak, ordainketa-komisioak eta bestelako ordainketa-moduak, bai eta, hala badagokio, lehiaketan parte hartzen dutenentzat finkatzen diren primak edo kontraprestazioak ere.

14.- ORDAINTZEKO ERA.

Kontratatutako zerbitzuen ordainketa hileroko ziurtagirien bidez egingo da. Igarotako hilabetean egindako lana ordainduko da; udal zerbitzuaren arduradunari bidaliko zaio faktura eta hark onartu egingo du.

15.- PREZIOEN AZTERKETA.

Ez dagokio.

16.- ZERBITZUAK HANDITZEA EDO GUTXITZEA.

Udalaren beharren arabera.

17.- ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA.

Enpresa esleipendunak erantzukizun zibileko asegurua kontratatu beharko du zerbitzuaren indarraldian zerbitzua emateak eragin ditzakeen arriskuak estaltzeko. Erantzukizun zibileko polizaren gutxieneko kalte-ordaina 80.000 eurokoa izango da, ezbeharreko. Kalte-ordainak polizan jarritako muga gainditzen badu, enpresa esleipendunak ordaindu beharko du eskatutako kalte-ordain guztia.

Enpresa esleipendunak, aseguru-hartzaileak, aseguru-etxearen egiaztagiria izan beharko du aseguruaren baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko. Horrez gain, polizako ordainketak egunean eduki beharko ditu, eta hori egiaztatzeko, kontratua sinatzeko epe barruan polizari dagokion jatorrizko ordainagiria aurkeztu beharko du. Hurrengo ekitaldietan eta poliza amaitzean, berori berriztatu eta ordaindu dela egiaztatzeko agiria aurkeztu beharko da. Poliza ez ordaintzea arau-hauste larria izango da. Aipatutako polizan, klausula bat egon beharko da, aseguratzaileak udalaren kontrako berreskaera-eskubideari uko egiten diola jasotzen duena.

18.- KONTRATUA EZ BETETZEA

18.1. Berandutzeagatiko zigorrak

Esleipendunak kontratua gauzatzeko epea eta kontratazio-organoak ezarritako epe partzialak bete beharko ditu, zerbitzu-kontratu honen xede diren lanen instrukzio bakoitzari dagokionez.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, epe osoa betetzeko atzerapena izan badu, kontratua suntsiaraztea edo eguneroko zigorrak SPKLren 193.3 artikuluan aurreikusitako proportzioan ezartzea aukeratu ahal izango du administrazioak: 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko, BEZik gabe.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo, zigor berriak ezarrita, gauzatzen jarraitzea erabakitzeko.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, kontratuan zehaztutako prestazioen gauzatze partziala bete ez badu, administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea edo lehen ezarritako zigorrak ezartzea.

18.2 Prestazioa ez betetzeagatiko edo gaizki betetzeagatiko zigorrak

Oso larritzat jotzen dira esleipendunak klausula zehatzen agirietan ezarritako exekuzio-baldintza berezietako edozein ez betetzea.

Ez-betetze horiek kontratua suntsiarazteko arrazoi izango dira, salbu eta jarduketa isolatutzat eta berriz bideratu daitekeentzat jotzen bada, eta kontratua suntsiaraztea ez dela komenigarria kasuan kasuko zerbitzuaren intereserako; kasu horretan, dagokion zigorra ezarriko da.

Kontratua oso larri betetzen ez bada, BEZik gabeko esleipen-prezioaren % 5eko hertsapen-zigorrak ezarriko dira epeak betetzen ez diren egun eta/edo arau-hauste bakoitzeko, arau-haustearen larritasunaren, berrerortzearen eta fede txarraren arabera.

Kontratistak azpikontratazioaren arloan 19. klausulan ezarritako betebeharrak betetzen ez baditu, azpikontratatutakoaren zenbatekoaren % 5eko zigorra ezarriko zaio, eta hori errepikatzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Esleipendunak kontratuan ezarritako beste edozein betebehar ez betetzeak edo behar bezala ez betetzeak kontratuaren prezioaren % 5eko hertsapen-isuna ekarriko du, larritasun handiagoaren edo txikiagoaren eta berrerortzearen arabera.

Esleipendunari ezartzen zaizkion zigorrek ez dute zerikusirik kontratistak Udalari edo Udalaren aurka errepikatzeko eskubidea duten hirugarrenei kalteak eta galerak ordaintzeko duen betebeharrarekin.

Esleipendunak eskaintzaren alderdiak betetzen ez baditu, kontratistari eskatuko zaion kalte-ordainak bere eskaintzaren eta esleipendunak bete ez duen irizpidea kontuan hartu gabe kontratua esleitu zaion hurrengo kontratistaren eskaintzaren artean egon den aldea jasoko du.

18.3 Zigorrak ezartzea.

Kontratua ez betetzeagatiko zigor eta kalte-ordain horiek ezartzeko, kontraesaneko espediente sumarioa jarraituko da, eta salaketa egin ondoren 5 egun naturaleko epea emango zaio kontratistari alegazioak aurkezteko. Alegazio horiek eta zigor-espedientea alkateak edo hark eskuordetutako zinegotziak ebatziko ditu, zerbitzuaren udal-arduradunak txostena eta txosten juridikoa egin ondoren. Ebazpen horrek administrazio-bidea amaituko du.

Gertaeren berri idatziz jasotzen duenean hasiko da Udalak zigor horiek ezartzeko espedientea. Hala ere, uste bada ez-betetzeak ez duela eraginik izango lanen gauzatze materialean modu larrian, edo zigor-espedientea hasteak kalte handiagoa egin diezaiokeela kontratua gauzatzeari, onura baino, kontratuaren berme-epea amaitu aurreko edozein unetan hasi ahal izango da espediente hori.

Ezarritako zigorrak eta kalte-ordainak berehala betearaziko dira, eta Udalak kontratistari ordaindu gabe dituen ordainketen kenkari bidez gauzatuko dira. Dagoeneko ez badago ordaintzeke dagoen kopururik, behin betiko bermearen aurka ordaindu ahal izango dira, eta berme hori ez bada zigorraren zenbatekora iristen, premiamenduaren administrazio-bidetik erreklamatu ahal izango da, zuzenbide publikoko diru-sarreratzat jotzen delako.

ARRIETAKO
UDALA

19.- KONTRATUA LUZATZEA

Kontratu amaieran Arrietako Udalak eta enpresa esleipendunak berori 2 (BI) urtez luzatzea (urte 1 + urte 1) erabakiz gero, esleipenaren prezioa ez da aldatuko, ez bada berrikuspen-klausulan prezioak gaurkotzea erabakitzen.

20.- ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

<u>Eskaintza ekonomikoa</u>: 70 puntu, gehienez.

Aurkeztutako eskaintzak baloratuko dira, eta puntuaziorik baxuenari puntuaziorik altuena emango zaio, betiere ausarkerian sartuta ez badago. Gainerakoak modu proportzionalean baloratuko dira, formula honen arabera:

$$\text{Puntuak} = \frac{\text{Gehieneko puntuazioa x Eskaintza merkeena)}}{\text{Baloratzen den enpresa lizitatzailearen prezioa}}$$

Emaitza negatiboa bada, ZERO (0) puntu emango dira.

Eskaintzak neurriz kanpokotzat edo ausarkeriazkotzat jo ahal izango dira, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legean guztizko prezioari dagokionez jasotako kasuetan gertatzen badira.

<u>Orduak Udalaren eskura</u>: 20 puntu arte

Antolatzen diren bilera eta jardueretarako Udalaren eskura eskaintzen den ordu kopurua, ostegunetan izan ezik, gehienez 20 punturekin.

Puntuak = (gehieneko puntuazioa x aurkezten dan enpresaren ordu kopurua)/Ordu gehien eskeintzen dauan enpresaren eskeintza).

<u>Kontratatutako langileak</u>: 10 puntu.

Enpresan gaur egun lan-kontratu finkoa edo mugagabea duen eta gutxienez 2 urteko antzinatasuna duen eta enpresan lanaldiaren % 70etik gorako kontratua duen edo beste baten lan-subrogazioa duen pertsona bakoitzeko bi puntu, gehienez 10 puntu.